

# Joxe Iriarte bertso paper lehiaketa 2006

B maila. DBHko 1. eta 2 . mailak



## Lehen saria:

**Egilea:** Mainer Gabirondo Zelaia.

**Izenburua:** Txuri.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

## Bigarren saria:

**Egilea:** Ariane Insausti Amiano.

**Izenburua:** Kuadrilarekin hondartzara.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

I  
Txakur bat hartu gendun  
Altsasun behin baten  
Eta bere familia  
Pozoinduta hil zen  
Anai-arreba ta ama  
Betioko jua ziren  
Ta bera gelditu zen  
Gurekin bizitzen

II  
Iritsi eta berehala  
Egin gendun lotu  
Eta ez itozeko  
pixka bat lasotu  
Etxetik asko uztea  
Ez zitzaigun otu  
Lotuta egotean  
Egin zen erotu.

III  
Behin zizak hartzea jua  
Gine etxerako  
Eta txakurra hartu  
guri laguntzeko  
Txakurrak jan zituen  
Ziza txarrak asko  
Gau hartan lokartu zen  
Txuri betirako.

I  
Eguraldi ederra  
Zer egingo degu?  
Kalerako prest gaude  
Uda eta negu  
Hondartzara joateko  
Gogoa badegu  
Trenez Donostiraino  
Bidean gosaldtu

II  
Bikinia jantzita  
Denok hondartzara  
Olatutan saltoka  
Far eta algara  
Itsasoa zakartu  
Hauxe da ikara  
Hantxe zilipurdika  
Buruz uretara

III  
Begik ezin zabaldu  
Ze trago gazia  
Non dago bikinia  
Bistan ipurdia  
Lagunak berriz farrez  
Zu gorri-gorria  
Farrak bota ondoren  
Jango bazkaria

# Lehiaketara aurkeztu diren beste lanak

**Egilea:** Amaia Viana Etxeberria.

**Izenburua:** Aurtengo urtea, institutuan nagoen lehen urtea.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Aralarko Mikel Donea institutua.

Institutuarekin  
banuen nik kezka  
gauero loak hartu  
ezinik ni makal.  
Lehenengo eguna  
iritsi da jada  
beldurraren ondorioz  
egin ditut plantak.

Ama oso inoxente  
ez da konturatu  
eta goiza osoa  
patxadaz eman dut.  
Geroago arazo  
larria azaldu  
medikuarengana  
joateko aipatu.

Medikuak jakintsu  
direla egia  
eta askoz gehiago  
gezurren unian.  
Tripako mina alferra  
dudala jakinda  
eskarmentu moduan  
edan dut botika.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Ander Gorospe Fernandez.

**Izenburua:** Che Guevara.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Aralarko Mikel Donea institutua.

Ernesto Che Guevara  
Da bere izena  
Cuba askatu zuen  
Hori bai kemena  
"Gora independentzia"  
Zen beraren lema  
Che Guevara izan da  
gerrilero onena.

Che Guevarari buruz

Gaude hitz egiten

Medikuntza ikasi

Eta oso konten

Aritu egin zen

Jendea laguntzen

Eta bere bizia

Guk dugu ikasten.

Jaio egin zenetik

Ez du maite armada

Bainan gerretan ez du

Hark izan patxada

Historiako pertsonaia

Bihurtu da jada

Cuba askatu zuen

Eta heroia da.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Tamara Arizaga Moran.

**Izenburua:** Altsasu hoberena.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Aralarko Mikel Donea institutua.

Oso polita da ta

Altsasuko herria

Egiten duten tarta

Dibertigarria

Eskoletako lana

Oso aspergarri

Baina ez du inporta

beti farregarri.

Nire andereñoa

Oso maltzurra da

Ura hartzera noa

Ta beti zigorra

Beti kalera noa

Arrazoirik gabe

Nire etxera doa

Bronka botatzera.

Nire ama eta aita

Haserretu dira

Etxekolanak bota

Ta zigorra izan

Negarrez hasi eta

Barkatu didate

Berriro ez dut bota

Badazpada ere

Txokolatea hartu

Tableta bukatu

Potoldu egiten dut

Arropa txikia

Dendara ailegatu

Txokolatea jan

Tableta jan ondoren

Ordainduko dut.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Amaia Fusté Etxeberria.

**Izenburua:** Amantea.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Aralarko Mikel Donea institutua.

Ez nago oso ziur

Zu nire maitea

Bizitza osorako

Zukin egotea

Nire bihotza ez da

Zure emaztea

Neri utzi bakean

Ni naiz amantea.

Ez esan hori nire azukre kokorra

Zutako joko ditut

Txistu (e)ta danborra

Zuk utzi nahi baduzu

loretxo minkorra

Orduan izango dut

Mina iraunkorra.

Agur esaten dizut

Zuri izartxo

Ez naiz hemen egongo

Izanez atsoa

Noizbait jakingo dute

Zure umetxoak

Biok maite ginela

Luzaro martxoan.

\*\*\*\*\*



**Egilea:** Telmo Zulaika Perez.  
**Izenburua:** Kirola.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Ni eta zu joan ginen  
Kirola egitera  
Egin genuen bai  
Joan ginen jatera  
Eskolatik etxera  
Haurrak hantxe bira  
Klasetik patiora  
haurrak hortxe dira

lehenengo ireki  
eta gero itxi  
aurpegiak daukagu  
eta oso bitxi  
neka-neka dabilta  
gauero eta beti  
etxean dabilta bi  
baino beti gaizki.

Ez naiz joaten horra ta  
Kirola egiten dut  
Baita etxera  
jokoak badituzte  
ez naiz alferra eta  
lana egiten dut  
bertsoak horrelaxe  
nik bukatzen ditut.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Nerea Ruiz Imaz.  
**Izenburua:** Kurtso berria hasi da.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Ikastetxe berrian  
Kurtsoa hasi da  
Ta denok alai-alai  
Lagun berriak eginda  
Irakasgai gehiago  
Ta zailak jada  
Pixkat aspergarriak  
Ez da(g)o zer eginda.

Neska-mutil handiak  
Badaude bertan  
Lotsa jasan behar da

Jolas eta korrikari  
Gainera da(g)o futbola  
Errekreoretan  
Eta denbora pasa  
Egon gabiltza han.

Hau bukatzerako  
Beste batera arte  
Ta pena handia da  
Utzi behar zaituzte  
Hemen egongo gara  
Ez dakit noiz arte  
Eta hau denarekin  
Esan bihar arte.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Erkuden Palacios Palomino.  
**Izenburua:** Nire Gabonak.  
**Doinua:** ----  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Hialbete bat barru  
Olentzero dator  
Jostailu berriekin  
ta goxokiekin  
Jesus gure haurtxoa  
Gabon gauan jaio  
Zelako ospatzen da  
Oporren artean

2007 urtea  
Aurten ospatzen da  
Ni aitona eta  
Lengusinekin ta  
Osaba-izebekin  
Denok pozaren pozaz  
Urtea ospatzen dugu  
Denok Irrifartsu

Urtarrialren 6an  
Errege magoak  
Gameluetan datozte  
Opariz beteta  
Leku batetik bestera  
Banatzen doazte  
Horrela bukatzen dira  
Aurtengo gabonak.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Amaia Urteaga Ronda.  
**Izenburua:** Desafio berri bat.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Bigarren aukera bat  
dut bizitza hontan  
Bertsotan luzitzeko  
ahal dudana moduan  
Bizpahiru aukera baino  
ez ditugu urtean  
Baina sakandar hauek  
dihardute lanean

Aitarengana joan nahiz  
laguntza eskean  
Yo no se hacerlo hija  
erantzun ostean  
Holako gurasoak  
zertako ditudan  
Galdetzen naiz artean  
bueltan ematean

Irakaslearengana  
joan nahiz azkenean  
Bakar egin behar duzu  
esan dit orduan  
Nola egin behar dut  
daukat barrenian  
Azkenean bertsoa  
hola geratu zan

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Amelia Moreno.  
**Izenburua:** Diskriminazioa batzutan?  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Sakana txikia  
Sakanari maitatu  
Nafarroa handia  
Nafarroa hartu  
Begi onez, zergatik?  
Ongi begiratu  
Desberdinak dira e!  
Oraitxe desberdindu



Pertsona bat txuria  
Bestea beltza  
Beste hori horia  
Orduan laguntza  
Min egin al didate  
Hor duzu eskaintza  
Diskriminazioa  
Hau nire zalantza

Mundu handi honetan  
Desberdintasuna  
Arazo handi bat da  
Iguar handiena  
Afrikako lekutan  
Ez dute osasuna  
Ezta jateko ere  
Gu aldiz onena

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Ainire Garisoain Olmedillo.  
**Izenburua:** Egun txarra.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Arratsaldea da ta  
Aspertuta nago  
Lagunekin atera  
Gero dut egingo  
Azkenean kalean  
Futbola gehiago  
Baloia enkalatu  
Ta ni joan beharko.

Baloia hartu eta  
Harresian geratu  
Lagunek lagunduta  
Hortik eskapatu  
Jokoa bukatuta  
3-0 galdu  
Ura edan ondoren  
Etxera abiatu

Zikina etxera heldu  
Amak bronka bota  
Logelara bidali  
Ohean sartuta  
Pijama jarri eta  
Liburua hartuta  
Irakurtzen hasi naiz  
Ni gogoz beteta.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Unai Otermin Benito.  
**Izenburua:** Iñauteriak.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralako Mikel  
Donea institutua.

Zer izango zara zu  
Ihauterietan  
Nik ezpata badaukat  
Berria benetan

Nire etxe handian  
Lagunak etorri  
Mozorratuta nago  
Maindirea jarri

Nire etxe txikian  
Ihauteriak bueltan  
Momotxorroz nago  
Ihauterietan.

IHAUTERIAK DIRA  
ETA NI ETXERA  
JOANGO NAIZ  
MOZORROA JARTZERA

IHAUTERIAK DIRA  
ETA NI PIRATEZ  
MOZORRATUKO NAIZ  
FARREZ ETA FARREZ

Iñauteriak dira  
Ze festa polita  
Momotxorroz jantzita  
Ze traje polita

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Oihane Diaz de Durana  
Gonzalez.  
**Izenburua:** Gabonak.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Gabonak heldu dira  
opariz betea  
Ama, aita eta ni  
apaindu zuhaitza  
Gabon-gaua pasatu  
famili osoa  
Etxekolanak egin  
eta gero festa

Olentzero etorri  
gu lo bitartean  
Goizean esnatu  
opari mahaian  
Gero opariekin  
pozik jarri nintzen  
Olentzero jarri  
gaileta esnean

Oraindik gabonak  
ez dira bukatu  
Goizeko hamarretan  
laguna esnatu  
Lagunari txirrria  
berriro ukitu  
Gero etxera joan  
opariak hartu

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Oihana Paniagua Zubikoa.  
**Izenburua:** Urte gogorra.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Aralarko Mikel  
Donea institutua.

Nire lehen urtea  
Instituoan da,  
Ez dakit emango dit  
Eta beherakada.  
Mesedez irakasle  
Ezazu gupida,  
Susènditu kurtsoa  
Ez nazazu jada.

Lagunak egin ditut  
Mutil eta neska,  
Oso ongi pasatzen dut  
Haiekin farrezka.  
Laguntzen gara elkar  
Dugunean kezka  
Eta beti gabiltza guztiok talde-  
ka.

Azkeneko bertsoa  
Kantatu beharra,  
Zer kontatuko nik ba  
Ez da lanbaldarra.  
Gustokoa izan dut  
Bertsoen indarra,  
Honekin bukatzen da  
Nire lan gogorra.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Oier Huizi Saez de Albeniz.  
**Izenburua:** Pakearen bila dabilen usoa.  
**Doinua:** Hamalau heriotzarena.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Bazegoen uso bat  
 Zela oso trakets  
 Eta honek bazeukan  
 Bizitzeko amets  
 Zegoen ehiztari bat  
 Izenez zen Kimetz  
 Bere karabina zen  
 Gogor eta aketz  
 Tirokatu zuen ta  
 Hautsi hiru saihets.

Hegaltxo bat hautsita  
 Joaten hasi zen  
 Ta bera nekaturik  
 Mugatik pasa zen  
 Ikusita kabi bat  
 Joaten nekatu zen  
 Hala ere iritsita  
 Handik erori zen  
 Ezin zuen gehiago  
 Ta Araban hil zen

Bera hil zen lekuan  
 Ez zegoen inor  
 Bakarrik gelditu zen  
 Iritsi arte Aitor  
 Bera txiroa zela  
 Ta zuen hainbat zor  
 Dendara joan eta  
 Saldu zuen hor  
 Geroztik hemen dugu  
 Panorama gogor

\*\*\*\*\*



**Egilea:** Oihane Mayo Ijurra.  
**Izenburua:** Nire katua.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

ezingo diot ahaztu  
 nire katuari  
 zulo bat utzi dio  
 nire bihotzari.

\*\*\*\*\*

Nire katutxoa  
 maitagarri benetan  
 ta oso zintzoa  
 beti alai alai  
 ez zen ez zozoa  
 kasu egiten zuen  
 nire laguntxoa  
 hil egin zela bera  
 a ze arraroa.

Nire lagunekin  
 etxera iritsi ta  
 berehala jakin  
 katua hilik zegoen  
 lurren zikin zikin  
 autoa harrapatu  
 hil egin zela arin  
 bakarrik urte batez  
 egon zen nirekin.

Asko maite nion  
 nire kuttunari  
 hasiera eman niola  
 ni neuk tristurari  
 ezinezkoa nion  
 eutsi negarrari

**Egilea:** Iraitz Berastegi Razkin.  
**Izenburua:** Hegazti gripez kontajiatu naiz.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Mendira iritsi ta  
 Postutara goazen  
 Zerua oskarbi dago  
 Usoei itxoiten  
 Gosaltzen hasterako  
 Fundan dugu sartzen  
 Usoak etorrita  
 Bera dira jaisten.

Denbora igaro da  
 Uso gutxi daude  
 Aspertzen hasi eta  
 Pazientziarik gabe  
 Azkenean gosea ta  
 Eskopeta gorde  
 Usoak etorri ta  
 Tiro egin gabe.

Arratsaldeko seiak iritsi ondoren  
Usoak hartu eta  
Afaltzera goazen  
Usoak jan ondoren  
Gaizki naiz sentitzen  
Hegaztiaren gripez  
Naiz kontajiatzen.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Alain Gabirondo.  
**Izenburua:** Mendia.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.  
Lo egin eta gero  
gaude orain kartetan  
besteak asperturik  
leize txiki hortan.  
joan egin garela  
herrirantz abian  
konturatu egin gara  
zegola bat faltan.

Denak elkartu eta  
ja gaude geinberan  
motxilatik bokata  
ateratakoan.  
hankekin oztopatu  
ta nago lurrean  
aurpegia odolez  
daukat estalian

Konortea galdurik  
daukat aspaldian  
hartu egin didate  
lagunak besotan  
ordu erdia pasa  
nengoen etxean  
ama ikaraturik  
garraxi bizian

\*\*\*\*\*



**Egilea:** Xabier Karasatorre Mendez.  
**Izenburua:** Ikastola.  
**Doinua:** Txikitatik entzun dut.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Esnatu egin naiz ta  
nago tristetua  
frogatxo dugulako  
ta ondoren kantua  
gero gosaldtu eta  
ni atzeratua  
ikastolara joan naiz  
ni berandutua  
Lehen bertsoak egin  
ta ez dut kantatu  
horregaitik maisuak  
egin dit zigortu  
frogan txibatu dut ta  
ez nau harrapatu  
txirrinak jo du eta  
klasea amaitu

Orain matematika  
ondoren euskara  
falta jarri didate  
ikusteagatik hara  
lehiotik ikusita  
ura gora bera  
azkenik amaituta  
etxera joango gara

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Manex Insausti Olasagarre.  
**Izenburua:** Bertsoak.  
**Doinua:** Hamalau heriotzena.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Jantzita ginen elur  
Arropekin sarri  
Ikusi genituen  
Txarrak eta gorri  
Izoztuta baizeuden  
Hanka ta belarri  
Kazkabarra hasiko  
Gu han ginen larri  
Bidean ginen bizkor  
Ezin egin korri

Trineo pistan ginen  
Eguraldi zakar  
Maldan behera jolasten

Ta zeruak mar-mar  
Gustora ari ginen  
Egueldia kaskar  
Lainoak bertan ziren  
Beltza zen Aralar  
Kazkabarra hari zen  
Ta gorde behar azkar

Txabolan gorde ginen  
Hura gauza bertan  
Bizar handiko gizon  
Eskale bat bazan  
Hizketan hasi ginen  
Txabola harretan  
Harrek kontatu zigun  
Ni eskalea izan  
Eta gu egon ginen  
Harekin hizketan

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Sabine Arakama.  
**Izenburua:** Aldamenekoen labadora.  
**Doinua:** Bizkaiko txerria.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Ohean lasai-lasai  
Nengoen amesten  
Zurrungaka nengoen  
Ta sakon arnasten  
Printzipe bat nintzen ta  
Asko-asko jaten  
Bat-batean esnatu  
Ta zerbait entzuten  
Labadora zahar bat zen  
Soinua egiten.

Labadora zahar hori  
Zegoen kantatzen  
Ta aldamenekoa  
danbolina jotzen  
Behin eta berriro  
Lo egiten saiatzen  
Baina nire txakurra  
Zegoen dantzatzen  
Egin ahalak eginda  
Ez non lorik hartzen.

Ohetik jaiki eta  
Egin naiz nazkatu  
Pentsatzen jarri eta  
Plan bat bururatu  
Komunera joan ta

Papera topatu  
behera jaitsi eta  
tuboa bilatu  
hodiak ataskatu eta  
etxea inundatu.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Iker Etxeberria Ijurra.  
**Izenburua:** Bertsoak.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Gure katua dela  
benetan azkarra  
bere umea dela  
pixka bat zakarra  
ondoan daukagula  
erreka adarra  
katuak daramatza  
A ze pinta txarra

Nire lehengusuekin  
noa bilatzera  
oraindik falta zaigu  
asko korritzea  
oraintxe nahiko nuke  
denak bilatzea  
nire ustez daudela  
denak itotzera

Zurkiloa dagola  
benetan polita  
ura dagoelako  
erabat hazita  
erreka ertzak daude  
erabat nahasita  
hortxe ikusi ditut  
katuak bizita

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Laida Agirre Etxeberria.  
**Izenburua:** Nire katua.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Katubet nakan nere etxean  
Rosak beldurra bazuen  
Beldurra zion katu gaixuai  
Andrioi erotu huen  
Ondoren moztu be azazkalak  
Berdín eskalatzen zuen

Tomate, meloi ta pepinoak  
Neguan jaten zituen.

Bero haiekin kixkaltzen ai zen  
orduan zuen egarri  
pozoindu ta katua grabe  
barkamenak gui ekarri  
egindakoa ahaldemenak zen  
oso ze oso mingarri  
nik maskota bat edukinai nun  
Hoi eskatu dut bakarri.

Hurrengo goizien etxia etorri  
Goitik behera rapaturik  
CSI-ri non deittu eta  
Zeuden oso lanpeituik  
Esan zibieten biharko baietz  
Espiatu nobien esnatuik  
CSI-k esan beraiek ziela  
Guk esanda ez da kasuik

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Udane Agirre Jaka.  
**Izenburua:** Txakurra.  
**Doinua:** Maritxu nora zoaz.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Ni animaliekin  
joan nintzen basora  
ta nik sentitu nuen  
norbait falta zela  
entzun nituen ba nik  
soinuak zeudela  
nire potolotxoak  
kumeak zeuzkan ta

Txakurrak esan zidan  
norbait ez zegoela  
ta nii hasi nitzen  
kumearen bila  
inon ez zen agertzen  
joan nintzen basora  
nun ote dago nire  
txakur polit hura

Basoa zeharkatu  
zegoen otxoa  
ta guk topatu genuen  
han errekatxoa  
bera hantxe zebilen  
bila arraintxoa  
azkenean agertu

zen han txakurtxoa

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Jon Igoa Urrestarazu.  
**Izenburua:** Basoan galdu naiz.  
**Doinua:** Hamalau heriotzak.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Basoan nengoela  
egarriak nintzen  
errekara joan eta  
buruz bota nintzen  
ia-ia itota  
han geratzen nintzen  
arrama bati eutsi  
ez nekien non nintzen  
lurrean eseri eta  
han geratu nintzen

Han jada hiru aste  
nengoen galduta  
ez neukan jateko  
edateko ezta  
belarra jaten nuen  
ez zegoen txarra ta  
ura errekatik edan  
ez zegoen besteik ta  
tontoa izan nintzen  
gosaria nuen ta

Gosaria jan eta  
loak hartu nuen  
esnatu ta errekara  
salto egin nuen  
gero negarrez hasi  
hil nahiago nuen  
zortea izan nuen ta  
herrian nengoen  
jendea pozik jarri  
ta festa egin nuen

\*\*\*\*\*



**Egilea:** Illamilé Basabe Markotegi.  
**Izenburua:** Mendira joan eta katagorria ikusi.  
**Doinua:** Bizkaiko txerria.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Kattagorri ikusi  
zuen ba maketa  
Galdetu egin zuen  
nola zen kometa  
Kometaren gainean  
zegola astronauta  
Eta kattagorriak  
puzkerra zuen bota  
Puzkerraren gainean  
zegin tximeleta

Orduan bera ere  
izan zen tsantsati  
Lehoiak pixkat ere  
zirela beldurti  
Gero kattagorria  
izan zen lotsati  
Eta bere atzean  
lehoiak basati  
Lehoi hoiak zirela  
pixkabat goseti

Kattagorri atzera  
zuen begiratu  
Gero berriro egin  
zuen ba pentsatu  
Berriz pentsatzekoan  
korrika txintsatu  
Azkenik bera ere  
pixkabat ximurtu

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Adur Lasa Untziti.  
**Izenburua:** Nire txakurra.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Nire etxera sartu  
Eta hasi naiz bila  
Txakurra ez daola  
Hartu dut makila  
Etxetik aterata  
Dago euri pila  
Pentsatzen hasi naiz ta  
Bera dago hila  
Bihotza egin zaidala

Zatietan mila.  
Herritik hasi naiz ni  
Ne makilarekin  
Pertsoneri galdetuta  
Ez dago zer egin  
Hara non ikusi dut  
Martan txakurrarekin.  
Deitu, deitu eta deitu  
Egin dut alegin  
Txakurrak ez du kaso  
Ezer nereri egin.

Txakurra hasi dela  
Neregana etortzen  
Bideberrian dago  
Saiatzen pasatzen.  
Bapatean kotxea  
hasi da etortzen  
Txakurra ikusi dut  
Han bertan gelditu da  
Bera desangratzen.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Oihan Larraza Razkin.  
**Izenburua:** Txakurrak!  
**Doinua:** Pasaiako herritik.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Afaltzeko ordua  
gu etxe barruan  
ostirala ze la ta  
eserita suan.  
Bajerara jaitsita  
arratsa neguan  
ateratzen hasita  
umea orduan.

Lehenengo laurak hortxe  
eman dute lata  
denak ez dira jaio  
baten bat faltata.  
Afaltzeko ordua  
tortila patata  
beste bi jaio dira  
seiak aterata.

Fox Terrier arrazako  
politik askoak  
beltzak eta txuriak  
marroi halakoak.  
Sei txakurrak ta amak

osatutakoak  
talde bat agian  
boleibolekoak.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Irati Pellejero Marin.  
**Izenburua:** Txabola.  
**Doinua:** Iturengo Arotza.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Ni ta nire lagunak  
bagoaz mendira  
txabola egitekotan  
goaz mendi zaharrera  
Jarri zaitetz lanean  
o zoaz etxera  
gu lana egin nahi dugu  
joateko gelara

Hurrengo egunean gaude  
etzanda ohean  
abujetak ditugu  
eskuan eta oinean  
ama etorri eta  
jarri zait gainean  
esne baso batekin  
trapua azpian

Iritsi naiz gelara  
Buruko minarekin  
Kolpe bat hatu dut ta  
gure atearekin  
andereñoa hasi zait  
jotzen boliarekin  
ez dudalako egin  
nire gogoekin

\*\*\*\*\*







**Egilea:** Oihan Razkin Azpiroz.  
**Izenburua:** Maskota bat nahi dut.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Amets bat bakarrik dut  
 Ez idazu aipa  
 Etxean nahi dudala  
 Txakurtxo polita  
 Kalera irten eta  
 Nazkatzen hasita  
 Lagunak txakurrekin  
 Ni inbidiz josita

Orain bai dauzkadala  
 Makina bat nahaste  
 Nahi nituzke nik orain  
 Hamaika ahate  
 Gurasoengana joan  
 Tapoi batzuk eske  
 Galdetu diet eta  
 Ezetz esan dute

Asteak pasa eta  
 Berdin jarraitzen dut  
 Maskota bat nahi eta  
 Ezin nahiz lasaitu  
 Galdetu ta galdetu  
 Azkenean lortu dut  
 Aleginak eginda  
 Konbentzitu ditut

**Egilea:** Nahia Urkia Ihaben.  
**Izenburua:** Nire Animaliak.  
**Doinua:** furra furra.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Bertso hontan ezin da  
 Ezkutatu egia  
 Animalia hauekin  
 A ze komeria  
 Txakurra trajearekin  
 Halako aurpegia  
 Pirxi atuna jaten  
 Katu lodiegia.

Txakur hauekin badut  
 Arazo larriegia  
 Ederren trajea da  
 Nahiko estuegia  
 Laikan gorputza berriz  
 Dago miegia  
 Azkenekoz Jaiena  
 Dauka estuegia.

Hara gure katua  
 Dago lodiegi  
 Jana jaten baitigu  
 Asko eta ugari  
 Orain tripa ikusita  
 Badauka nabari  
 Katuaren ondarrak  
 Tokatu zait niri.

**Egilea:** Naroa Araña Mendinueta.  
**Izenburua:** Txakurra.  
**Doinua:** 14 heriotzak.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Mendira joan ginen  
 txakur polittakin  
 ur, ezkur ta onttoak  
 biltzeko gurekin  
 gau aldea\_iritzi zen  
 txakur katearekin  
 oinez ibili ginen  
 makil handiakin  
 pozik geundiñen denok  
 gaua egitearekin

Sasien artetikan  
 gero\_ibili ginen  
 baina bera begira  
 txakurra faltatzen  
 bila ta bila ibili  
 txakurra\_ezegen  
 ni negarrez nengon ta  
 aita kezkatu zen  
 nire txakur gaixoa  
 non ote zegoen

Mendi ilun harretan  
 gu linternarekin  
 txakurrari deituta  
 ezon inorrekin  
 ehiztarien soinua  
 entzun zen ozenki  
 berarengana joan  
 ta esan zun penakin  
 txakurrari tiroa  
 bota\_eskopetakin

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Ander Gabirondo Vazquez.  
**Izenburua:** Gaztainak hartzera joan naiz.  
**Doinua:** Hamalau heriotzarena.  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Ostiral goizean  
badauzkat gogoak  
gaztainak hartzeko ta  
jateko batipat  
zortzi terdiak ziren  
gosea badaukat  
mendira joateko  
gosaldu gailetak  
basora joan behar  
hartzera gaztainak

Azkenean aspertu  
egon naiz ordu bat  
ez dakit zenbat dauden  
berrogei batipat  
poltsa ezin dut hartu  
asko daramatzat  
etxera jaisteko  
badauzkat gogoak  
poltsa ezin dut hartu  
bost kilo daramat

Poltsa hartu ondoren  
herrira bidean  
ezin naizela ibili  
aurrera lokatzen  
hori pasata gero  
sartu naiz lainoan  
uste dut nagoela  
mendi eskusioan  
maldan behera erori  
etxera bidean

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Oihane Kintana Igoa.  
**Izenburua:** Negua.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Aurten dator negua  
plis-plas batean  
hil hotzenak badatoz  
eta ni etxean  
goxo-goxo nago ta  
ni nago lo-gelan  
elurra mara-mara ta

hotza da kalean  
Olivirekin ginen  
ikasten euskera  
ta elurra hasi da  
gogor mara-mara  
elurte honengatik  
gu hementxe gara  
denok haserreturik  
joan gabe etxera

Ezin ginela atera  
argi zegoen bai  
alde batera utzi  
hainbat ikasgai  
ta denok gaude orain  
pozik eta alai  
kriston festa ospatu  
hartu baitugu jai

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Kattalin Armendariz Irastorza.  
**Izenburua:** Bertsoak.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Nik badaukat txakur bat  
oso ona aktore.  
Nire aita ikusita  
jartzen da pozare.  
Eta nik esaten diot  
egoteko bare.  
Mendira joan dira  
ta egin du alde.  
Pozoindu egin dute  
ezer esan gabe.

Goizean ikusi dut  
oso oihulari.  
Ondoren laztandu dut  
ta zerbait nabari.  
Begiratu egin diot  
ez zegoen ongi.  
Gero bururatu zait  
joatea al baitari.

Oso gaizki dagoela  
esan digu guri.

Pozoina jan duela  
esan digu jada.  
Ta hori niretzat da  
kriston ostikada.  
Ahotikan botatzen  
hasi zaio baba.  
Jeringila hartzeko  
esan diot benga.  
Inyekzioa jarrita  
sendatu egin da.

\*\*\*\*\*

**Egilea:** Ainhoa Razkin Medrano  
**Izenburua:** Bertsoak.  
**Doinua:** ---  
**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Etetik atera ta  
Autobusa ez dago  
Itxoiten eta itxoiten  
Asperturik nago  
Azkenik joan egin naiz  
Hortik hurrunago  
Nire lagunak ere  
Joan dira lehenago

Herritik egon gara  
Gu ondo pasatzen  
Bainadorea hartu  
Hondartzara sartzen  
Hondartzatik atera  
Ta denok erosten  
Futboleant ibili  
Ta gu disfrutatzen.

Gu nekatuak gaude  
Goazen etxera  
ez dago autobusik  
Autostop egitera  
Ez gaitu inorrek hartzen  
Jende asko gara  
Ni kotxean sartu naiz  
Ta zuek kalera

\*\*\*\*\*



**Egilea:** Iñigo Arratibel Karasatorre.

**Izenburua:** Nire baloia.

**Doinua:** ---

**Ikastetxea:** Andra Mari ikastola.

Etxetik atera naiz  
Baloia eskuetan  
Eta joan naizela  
Hortik jolasean  
Ostiko bat emanda  
Bota dut airean  
Eta kateatu zait  
Ifeel dorrean

Dirurik ez nuenez  
Sartu naiz korrikan  
Eta ikus didate  
Jendeak laisterkan  
Poliziei abisau  
Diete prisakan  
Orduan etor dira  
Nire atzetikan

Baloia hartu eta  
Naute ni jarraitzen  
Ta bitartean nago  
Irtera bilatzen  
Metro batzuk eginda  
Joan naiz izerditzen  
Azkenean ez naute  
Ni arrapatzen

